

Rafael Urtasun Urtasun
Erroibar, Nafarroa (1908)

Aurkibidea

Biografia

Erroibarko Aurizberri herrikoa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Zintak

ERB-013

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1983-01-01
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

Pasarteak

1. Ikazkintzaren inguruko azalpenak I

- **Erref:** ERB-013/001
- **Iraupena:** 0:08:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:08:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ikazkintzaren inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Lote batzuk eman tze-, ematen zute? yendeindako; lotea emen: bortz edo sei bago, bakotxendako, ta gero, ura? pues... egur, egurtu bear tze. Erabakitzen tzute metro at luzeko... trunkuak? gero arraildu?, ta gero iten tzute, plaza deitzen zuten ola... biribil bat, t'arren inguran? zartzen tzituzte, arrail...-duko, arrailduik... zituzten trunkuak? 'la pila', ongi. Gero, adarretaik? alaxeko... latasan (?) oeteik? -ala xeio-, oe, aek... azkeneko; ta... plazain erdian apalatzen tzute, olaxeko... kuadro at? lau... estrongoekin? ta gero an, ola (...), tubo at izan baze bezala! ta... arren inguruan? paratzen tzute ola... (eskuz aditzera emanaz) o egurrak, denak, dena...

- Inklinaturik?

- Kono at, kono at... kono at; ta... gero, muturretik...

- Ta gero, muturretik...

- Muturretik? bueno, gero... konoa in... in ondoan? iratzez? ematen tzekote olaxeko kapa, ta gero... lurraikin? lurra ta... uraikin? iten tzute loa bezalakoi idor... bai, idorra, franko idorra? ta... 'extal-pala' deitzen zuten pala... zurezko pala? berek iten zituzte, te botatzen zute lurra, kono ortara? ta gero, ola: gibleko aldeko palaikin?...

- Nibeldu...

- Bai, ola axel-, intxatuik au bezala uzten zituzte. Ta, ura? inguru guzita akabatu bier zutelaik? su at... aundie iten zute, ta... brasa guzia artu, an... pala zerbaitean edo, bezko zar... zenbaitean o ala? ta, bota andik, zilo artaik barnea; ta... gero ya... su puxka at botatzen zutelaik? olaxeko... zoia deitzen tzen... lur puxka at, bere... bere... belarraekin ta guzia? altzurraikin atratzen zute? ta, zilo ura tapatu biar zute. Ta zilo ura tapatzeikin? ya kea, normatik, nondipait... atra bear tzue, ta ogeitalau ordu, ordu edo ola izaten, eoten... tze, sub ura... an, prensatuik, ta... orduän? denbora ori pastu? ta... egur biribil batei, mutur fin-fin bat iten tzekote? ta... inguru guzitik, konoin puntan? ola(t)xeko zilo atzuk, zilo atzuk, denetik iten tzute? ta, asten tze... kea botatzen!... ke... zuri bat, baaaa! sua... anitz! E... gogaitzen aal, on-, beitti artan ta ezinik ke atra gero, ala-ala egoten tze ta, gero? pues, egun bat edo bi, egunez, egoten ze ala ke... zuri öra botatzen? ta, asten tzelaik... ke bat, ola, axul-axula... atratzen? ya, ikatza, andik... ya, andik, zilo aetaik, ta zilo aetaik... goiti? ikaztui-, ikaztuik geld- eo zeo? lur ura. Gero, andi? o ura... zilo aek tapatu zituzte, palaikin yoz? ta... beitiagotik, bertze zilo atzuk, ta andik arrek asten tzue ke zuri bat, ta... eun batez edo biez edo... iruez, egoten tze ola, ta asten tzelaik, ola... eke xul, axul ura... atratzen? ya, ura ere... egosiik zego, ikatza inik... zeo. Yoten tzutel... or, inguruan... guzitik ziloak tapatzeko? ta gero, beitiagotik? berriz ziloak; zenbatenas ta beitiago? ta egun, orduan ta... egun yago egon bear tze? egur... bolumin andiagokoa agartzen tze, ya, azkenera ta, ellegatu artio. Ta, azkenean? pues, beitiko... lurrain ondoan iten (...) egoten tze?

obenean, aste bat edo yao? ta, berak ikusten pitz azkenak, kusten zela ya egosiik zeola? pues... dena! o mazo batekin, zurezko maz batekin, yotzen tzue denetik? an, tiruek eta, deus garbitzen tze? ta ya, asten tze, itzaltzen... lurrez beteriko, lurrez tapatuik gel-, gelditzen baitze? asten tze itzaltzen? ta gero, lemixiko egunean edo bigarren egunean edo... (Emazteari:) Ba-bai, echa, echa un poco más; vamos a terminar esto. Ta... oro gan? asten txire an, egun bat pastu ondo-ondoan ola... tapatuik? pues... gantxo bateki, burdinezko gantxo aundi batean? sartzen zute un... makil luze bat? ta ola pixkat, urrundik, asten tzire arrekin, ola, inguru... inguru guzitik, ikatza atratzen; ta... ikatza atratzeikin? uzten zute... zirkunferenzia guztian? bai? ya, su pixka zenbait atratzen tzuen eo... eh! ezpaze ala ere suik? ura... artu? arrastelu batekin, esportak lle-, o bete? ta gero zaku! zakuetara! Ta gero? berriz, bertze... egunean? ya... argitu ondoko yoaten zirela-ta? ta, gantxo arrekin, hala! ikatza atra, ge-, gero ta geago, gero ta geiao, gero ta geao... hala! bozpasei egunez? atratzen zute ikaz guzia, obrenean... bah! eztakit ze in duun! irueun edo barreun zaku ikatz... bai, ta eman, zakoak? filaetan, zortzi zaku... zartzen tzituzte... filan? zortzi zaku zire bi karga, bastanak tortzen tzire, mandoeki.

- Bastana, e?

- Basta, basta...

- Ah, bastean, basta, basta gainean...

- Basta gañean, bai; ba... ikaz-, ikazkinak? artistak izan bear tzute, e? ba otrexki deskuidu balin bazute? igual erretzen zitzae... je! ango... itzalki guziak, je! da oai, kontu aunitzeki, kontu aunitzeki ibili bear zute. Ahora, bizi... bizi, bizi... gogorra ze ura, e?

- Bai, e?

- Bai, bai; ikaztogia sutan zeolaik? gabas, eon bear tzute an; ta, gero... ya, biramonean, argitzen zuelaik? eo aixkide zenbait, an bertze... egurr iten ai zen norbait edo... eramaten zaiote? pues... yatekoak: urdaea, obia, ardoa... Ta etsola xarra zegola, aniz pollitak zire!... an tzituzte? eski- o... atarian, beriän? su pixkat... iten tzute, ta... ona, kabaña pixkat gibleko aldean? lo iteko bidea bazute... illa xea paratu, paratiko zute? ta, ongi axki, ongi axki...

- Bai, e?

- Bai, bai.

2. Ikazkintzaren inguruko azalpenak II

- **Erref:** ERB-013/002
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:08:44. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ikazkintzaren inguruko azalpenak. Zenbat ikazkin eta nongoak ibiltzen ziren. Ikatza Zumarragara eramaten zen Orbegozo lantegirako. Ikazkinek erabiltzen zituzten arropak.</p>

Transkripzioa

- Eta (ikaztogia edo txondorra) hemendik hurbil-edo?
- Bah! ogei minuto edo... ordu erdi bat, zenbait lekutan ordö at, iru ere bazela...
- Zenbat ikazkin egoten ziren batera?
- Ah, ikaztogi bakotxa? etx-, familia batena, e? baña launtzen zute elkar, e?

bai ordean, ori... laguntz- eo... aixkidantza aundia bazute; peligro aundie bat baze, ola... alako sua barnean izateikin ta, lurr aekin tapatua? zilo aetaik ezpazaike... aski atratzen, peligro aundia ze ola, ttak!... itzein ze, esplosionia bat iten tzue? ta, estalki guzia obrenean botatzen tze, ta orduan, ikazkin guzia(k) erraten tzire denen artean? ta... agerri? eta pat erosi (?), bertzenaz? ordu batez erreko ze an... zurakin? zer garkaldiak... Ori, ore, ori zuze-, ori ze emengo bizia.

- Eta ikazkinak, nongoak ziren?

- Emengoak!

- Hemengoak, e? Aurizperrikoak...

- Ba-bai; gure andreain... aita're, zenbat ikaztogi ez ote du in?

- Eta ikatza, gero, nora eramaten zen?

- Saltz-, atratzen tzute ola, bastan, mandueki(n), ta geo? denbora aetan? pues, galera aetan, eramaten tze. Ta... emendik? gantzei, zatza aunitz... Zumarragara, Orbegozoindako, obenian, bai... ya-ya. Ta gero? bertze aniz lekutara ere, baña...

- Nik aditu dut Iragin ere bazela ikazkinik...

- Bai, oi-oi-ai!... aisa!

- Bai? eta non bertze? inguru honetako herrietan ere bazen gehiago? ala gehienak Iragiko eta Aurizperrikoak ziren?

- Bai, oëan aunitz zuten lekuan; gero... Orrean ere; pues saltzen tzirelaik, subastan, oëanak? pues claro, ereman... zurak, ereman, ta gero, egurra gelditzen z(r)an? ta, ura, kaskoak eta txeatu, ta ikaztogiekin in. Gure aitak, ta... aita in a-... anaë batek izan tzute serreria? an... Orrean? Orrean eo... Orreagan? oräi Orreaga erraten da baña gure denboan Orrea!... bai. Ta... itz in tzute aunitz, itza... t'aunitz; a... zul ona? pues, tabla ta tablon, tabletaikin? ta gero... despojo oek eta, kaskoak eta denak, txeatu? ta... ikaztogia; gero andik? leku atera ta bertzera... lan zikina, ta goorra, e?

- Gogorra ere bai, e?

- Oi, oi, ama!... bai-bai, ala zie, ala ze emengo bizitzea.

- Eta zer arropa beztitzen zuten?

- Oi, oi, ama! gaixoak! gaixoak; albarkak...

- Arropa zaharra, hortan ibiltzeko, beti zikin ibili beharrez...

- Etzute gorbata aunitz bear, ez...

- Sonbrerorik bai...

- Eje! boneta.

- Nolabaiteko boneta bai, biloa edo, pixka bat defendatzeko zikinkeriatik, e?

- Baita're, baita're...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com